


Gure aplikazio dentala arrakastaz garatu, martxan jarri eta epe luzera mantendu ahal izateko, ezinbestekoa da funtsezko baliabide egokiak izatea. **Funtsezko baliabideak** dira proiektu batek existitzeko eta behar bezala funtzionatzeko behar dituen elementu guztiak, **bai ukigarriak** (fisikoak) **bai ukiezinak** (ezagutza, esperientzia edo informazioa). Baliabide horiei esker, **gure balio-proposamena garatu dezakegu**, hau da, **pazienteentzako benetan erabilgarria** den aplikazio bat sortu; **bezeroengana iritsi**; **haiekin harreman egokia mantendu**; eta, azken finean, **zerbitzuaren kalitatea handitu** eta **proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatu**.



Lehenik, baliabide fisikoak dira aplikazioa sortu eta mantentzeko behar ditugun **elementu material guztiak**. Gure proiektuan, **ordenagailuak** ezinbestekoak dira programazioa, diseinua eta datuen kudeaketa egiteko. Horrez gain, **mugikorrak eta tabletak** erabiltzen ditugu aplikazioa probatzeko eta erabiltzailearen esperientzia egokia dela ziurtatzeko. Interneteko **konexio segurua eta sare babestua** funtsezkoak dira pazienteen datu pertsonalak behar bezala babesteko. Era berean, zerbitzari edo hosting-sistema bat behar dugu aplikazioaren funtzionamendua eta datu klinikoak gordetzeko. Azkenik, klinikako instalazioak baliatzen ditugu informatikako lanak egiteko eta, behar denean, **aplikazioa pazienteekin zuzenean probatzeko**.

Alde honetan azaltzen diren **baliabide fisikoek** eta azpiegitura teknologikoek **aurretik emandako informazioarekin** bat egiten dute, izan ere, aplikazioaren garapena **aliantza estrategikoetan** oinarritzen da **datuen kudeaketa segurua, zerbitzari ziurtatuak, PACS eta HIS sistemak, telemedikuntza-plataformak** eta **segurtasun-neurriak** bermatzeko. Horrela, baliabide materialek eta kanpoko lankidetzek elkar osatzen dute, **kostuak eta arriskuak murriztuz** eta aplikazioaren **eraginkortasuna eta jasagarritasuna** ziurtatuz.

Bigarrenik, baliabide intelektualak dira gure proiektuaren balio handienetako bat. Horien artean nabarmentzen da **dental klinikaren jakintza profesionala**, tratamenduei, protokoloei, higiene-aholkuei eta jarraipen klinikoari lotutakoa. **Pazienteen datuak eta historiala** ere baliabide intelektual garrantzitsua dira, betiere legeak ezartzen dituen **segurtasun- eta pribatutasun-neurriak zorrotz betez**. Horrez gain, aplikazioaren diseinu intelektual



(erabiltzailearen esperientzia edo UX diseinua, gida bisualak...) funtsezkoa da aplikazioa **erraza eta erabilgarria** izan dadin. Softwarearen kodea, garapen teknikoak, marka eta identitate korporatiboa, eta aholku klinikoaren eduki espezializatuak ere gure baliabide intelektualen parte dira.

Hirugarrenik, giza baliabideak dira proiektuaren oinarrian dauden **pertsonak eta haien gaitasun profesionalak**. Gure kasuan, dental klinikako profesionalak (dentistak, higienistak...) funtsezko zeregina dute tratamenduen azalpenak eta eduki klinikoak sortzeko. **Programatzaileak eta garatzaileak** aplikazioa teknikoki eraikitzen dute eta behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzen dute. Diseinatzaile digitalen aplikazioa intuitiboa, **erakargarria eta erabiltzeko erraza** izan dadin lan egiten dute. Administrazioa edo harrerako langileak **hitzorduen kudeaketa eta eguneraketa** bermatzen dute, eta koordinatzaile klinikoak proiektuaren **antolaketa orokorra eta informazioaren kalitatea** gainbegiratzen ditu.

Azkenik, finantza-baliabideak dira proiektua abian jartzeko eta denboran zehar mantentzeko behar den **inbertsio ekonomikoa**. Gure aplikazioaren kasuan, PACS eta HIS azpiegiturak izango dira oinarri nagusia, bai garapenerako bai abiarazteko. Horrez gain, **barne-aurrekontua edo aurrezkiak** erabiltzen dira **mantentze-gastuei aurre egiteko**, hala nola hosting-zerbitzua, segurtasun informatikoa, eguneraketak eta garatzaileen lan-orduak. Beharrezkoa balitz, **kanpoko laguntzak ere kontuan hartzen ditugu**, adibidez digitalizaziorako diru-laguntzak edo Next Generation EU programaren bidezko finantzaketa.

